


# Neskak eta mutilak

Identitatea eta gorputza



Ikasmateriala  
v 1.0  
2016-05

Chrysallis Euskal Herria

Identitatea eta gorputzari buruzko oinarrizko ezagutza lantzea da ikasmaterial honen helburua, aniztasuna ulertu ahal izateko. Identitatearen eta genitalen arteko harremanean jarri nahi da bereziki arreta ikasgai honetan.

Orain arte eskoletan mutila=zakiladuna eta neska=bulbaduna ikuspegia izan da hurrei aditzera eman zaiena, eta hori ez da zuzena, ez duelako errealitatea bere osotasunean adierazten, haur batzuen izatea ukatuz, gainera. Material honen bidez argitu nahi da sexu-identitatea subjektibitatearekin lotuta dagoela, eta ez dela genitaletan aurkitzen. Eta agerian jarri egin nahi izan dugu badaudela zakila duten neskak eta bulba duten mutilak.

Identitatea soilik ezagutu daiteke subjektuaren kontaktaren bidez, hau da, subjektuari galdetuz. Material honetako marrazkitxoei ezin diegunez galdetu neska edo mutil diren, erabaki dugu ilearen itxura erabiltzea material hau erabiltzen dutenek marrazkitxo horietan neska bat edo mutil bat ikus dezaten. Azpimarratu nahi dugu, noski, badaudela ile motza duten neskak eta ile luzea duten mutilak.

Erabaki dugu, era berean, ikasmaterial honetan silueta bakar bat erabiltzea, hemen landu nahi duguna azpimarratu ahal izateko. Argi geldi dadila benetazko neskak eta mutilak ez direla marrazkitxo honetako siluetak bezalakoak, eta badaudela larruazala argiagoa eta larruazala ilunagoa dutenak, lodiagoak eta meheagoak, altuagoak eta baxuagoak, hazpegi oso desberdinekoak, gurpildun aulkian ibiltzen direnak, beso bakar bat dutenak...

Espero dugu material hau baliagarria izatea. Zinez eskertuko genuke erabiltzaileen oharrak eta hausnarketak jasotzea, moldatu eta hobetu ahal izateko.



[euskadi@chrysalis.org.es](mailto:euskadi@chrysalis.org.es)

#### **Idea eta diseinua**

Aingeru Mayor

#### **Marrazkiak**

Mattin Martiarena

#### **Argitaratzen du**

**Chrysalis Euskal Herria** Elkartea  
Loratuz Sarearen lankidetzarekin

2016ko Maiatza

Material didaktiko hau kopiatu eta fotokopiatu daiteke, bidali eta berbidali, zabaldu...  
Hori da, hain zuzen, gure gonbidapena.  
Hori bai, ez ahaztu egiletza aitortzen, eta ez erabili helburu komertzialekin.




Ni ez naiz neska edo mutila  
ilea motza edo luzea izateagatik,  
panpinekin edo baloiarekin jolasteagatik,  
zakila edo bulba izateagatik.

Ni neska banaiz, ni mutila banaiz,  
ez da besteez esaten dutelako,  
nik hala dela badakidalako baizik.  
Eta soilik nik esan dezaket zer naizen.

Ni neska naiz

Ni mutila naiz



Amaia

Mikel

# Neskak: guztiok desberdinak

Neska batzuk **handiak** gara eta besteak txikiak.  
 Batzuk **argalak** gara eta besteak **lodiak**.  
 Azalaren kolorea **argia** edo **iluna** izan dezakegu.  
**Ilehoriak**, beltzaranak, **gaztainakarak**, **ilegorriak**... gara.

Neska batzuk motz-motza dugu ilea,  
 eta besteok **oooooooooooo** luzea.  
 Batzuk ilea **orraztuta** eramaten dugu, eta besteok orraztu gabe.  
 Gutariko batzuk ilea askatuta eramaten dugu,  
 eta besteok mototsean bildua edo txirikordekin.

Neska batzuk gonak janzten ditugu eta besteok galtzak.  
 Batzuk **superheroien** mozorroak maite ditugu  
 eta besteok berriz printzesenak.  
 Zenbaitzui baloiarekin jolastea gustatzen zaigu  
 eta beste batzuei panpinekin.

Batzuk **zuhaitzetara** igotzea gustuko dugu,  
 eta besteok berriz eserita solasean aritzea nahiago.  
 Batzuk oihu eginez hitz egiten dugu, eta besteok modu isilean.  
 Batzuk **lotsatiak** gara eta beste batzuk **lotsagabeagoak**.

Neska batzuk ile gehiago dugu besoetan  
 eta beste batzuk gutxiago.  
 Batzuk ahots lodia dugu eta besteok mehea.  
 Batzuk bulba dugu eta beste batzuk zakila.

Modu askotakoak gara neskak.  
 Hori bai, denak **desberdinak**.


## ¿Nolakoak dira zure inguruko neskak?

Batzuk \_\_\_\_\_ goak dira  
 eta beste batzuk \_\_\_\_\_ goak

Batzuk \_\_\_\_\_ nahiago dute  
 eta besteok \_\_\_\_\_

Batzuk \_\_\_\_\_ eramaten dute  
 eta beste batzuk \_\_\_\_\_

Batzuk \_\_\_\_\_ daukate  
 eta beste batzuk \_\_\_\_\_



# Mutilak: guztiok desberdinak

Mutil batzuk handiak gara eta besteak txikiak.  
Batzuk argalak gara eta besteak lodiak.  
Azalaren kolorea argia edo iluna izan dezakegu.  
Ilehoriak, beltzaranak, gaztainakarak, ilegorriak... gara.

Mutil batzuk motz-motza dugu ilea  
eta besteok oooooooooooooo luzea.  
Batzuk ilea orraztuta eramaten dugu, eta besteok orraztu gabe.  
Gutariko batzuk ilea askatuta eramaten dugu  
eta besteok mototsean bildua edo txirikordekin.

Mutil batzuk gonak janzten ditugu eta besteok galtzak.  
Batzuk superheroien mozorroak maite ditugu  
eta besteok berriz printzesenak.  
Zenbaitzui baloiarekin jolastea gustatzen zaigu  
eta beste batzuei panpinekin.

Batzuk zuhaitzetara igotzea gustuko dugu,  
eta besteok berriz eserita solasean aritzea nahiago.  
Batzuk oihu eginez hitz egiten dugu, eta besteok modu isilean.  
Batzuk lotsatiaak gara eta beste batzuk lotsagabeagoak.

Mutil batzuk ile gehiago dugu besoetan  
eta beste batzuk gutxiago.  
Batzuk ahots lodia dugu eta besteok mehea.  
Batzuk bulba dugu eta beste batzuk zakila.

Modu askotakoak gara mutilak.  
Hori bai, denak desberdinak.


## ¿Nolakoak dira zure inguruko mutilak?

Batzuk \_\_\_\_\_ goak dira  
eta beste batzuk \_\_\_\_\_ goak


Batzuk \_\_\_\_\_ nahiago dute  
eta besteok \_\_\_\_\_

Batzuk \_\_\_\_\_ eramaten dute  
eta beste batzuk \_\_\_\_\_

Batzuk \_\_\_\_\_ daukate  
eta beste batzuk \_\_\_\_\_




Badaude  
bulba duten neskak...



...eta  
zakila duten neskak




Badaude  
bulba duten mutilak...




...eta  
zakila duten mutilak

Mutil eta neska bakoitzaren genitalak desberdinak dira.  
Itxura guztietako zakilak eta bulbak daude,  
gorputzeko beste atalekin gertatzen den bezalaxe, noski!  
Eta zakilaren zein bulbaren antzik ez duten genitalak ere badaude,  
edo bien antza dutenak aldi berean.




Neska gehienok bulba dugu  
eta neska batzuk zakila dugu.



Mutil gehienok zakila dugu  
eta mutil batzuk bulba dugu.

Badaude bulba duten neskak eta zakila duten neskak.  
Badaude zakila duten mutilak eta bulba duten mutilak.  
Ea hemen bakoitzetik zenbat aurkitzen dituzun.




Azken ikerketen arabera  
1000 mutiletatik batek bulba du,  
eta 1000 neskatatik batek zakila.




# Ileak, larruazala... denak desberdinak gara

Badaude neskak zein mutilak  
ile motzarekin eta ile luzearekin.  
Batzuek kizkurtua dute eta besteek lisoa,  
batzuek mototsak, txirikordak edo gandorra eramaten dute,  
batzuek ile horia izaten dute  
eta beste batzuek gaztain kolorekoa, edo gorria, edo beltza...  
Larruazal argiarekin eta ilunagoarekin.


Margotu zuk lagun hauei  
ilea eta larruazalaren kolorea.




Amaia



Lucía



Jon




Mikel

# Eta zu?

8

Hemen zure gorputza margotu dezakezu...




...eta hemen zure izena idatzi

# Zure familia

9

Hemen zure familia margotu dezakezu






Transexualitate egoeran dauden haur eta gazteen familien Elkartea  
**Chrysalis Euskal Herria**

YouTube   Scribd.

[euskadi@chrysalis.org.es](mailto:euskadi@chrysalis.org.es)



Transexualitatea  
ulertzen eta laguntzen duten  
ikastetxeen sarea

**Loratuz**

Red de centros escolares  
que comprenden y acompañan  
la transexualidad